

Armanak Uskara

edo

Ziberouko Egunaria

1903 gerren ourthekeo

Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarazuna eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen

Atharratzen

DETCHEVERRY enian

MENDIONDO-SANTZ enian

Prezioa : SOS BAT



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
⊕ " Argizagi azken laordena.
⊙ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
⊕ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 8^{an}; — HAOSTE, *baranthaila* 25^{an};
— BAZKO, *aphirila* 12^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 18^{an},
19^{an} eta 20^{an}; — SALBATORE, *maiatze* 21^{an}; — PHENTEKOSTE,
maiatze 31^{an}; — BESTABERRI, *arramaiatze* 11^{an}; — ABENTUKO
LEHEN IGANTIA, *azaro* 29^{an}.


LAOR THENPORAK :

Martchoko 4ⁿ, 6ⁿ eta 7ⁿ. } Buruilako 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ.
Arramaiatze 3ⁿ, 5ⁿ eta 6ⁿ. } Abentuko 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhunte phartezkoa martcho 28^{an}. Ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa, jorraila 11^{an}, ikhousiren dena Uskal Herrian. — Ekhi ulhunte osoa, buruila 21^{an}; ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa-urrieta 6^{an}; pharte ikhousiren ahalko die Uskal Herrian.







IRAKOURZALIARI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe, mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oro behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Laour gerren arraldia, aorthen hasten da.



ERRAN ZAHAR



ENEKO, etcheka hi hartzari,
Nik demadan ihesiari.

Enganazalia enganatu dianari,
Eman bekio ez phena, bena sari.


Erakouts itz atak hire lagunak,
Nik gero hiri ore athunak.

Erhobat aski da harrikantoubaten phutzian barna egoisteko, bena sei zuhur behar dira haren hantik idokiteko.

Erle joan nahiak, ez ezti, ez breska.

Errak egia, urkha haite.

Erradak nourekin bizi hizan,
Nik hiri, gero, noulako hizam.



Erroiak beliari : burubeltz.

Eskerdunari, izari mukurru.

Ezkount eguna aisa izanaren biharamuna.

Ezina azkarrago da ezi ez zina.

Ezta zer fida, ez zelu izarzian, ez emazte nigarsian.

Etchekeo suia etchekeo haotsaz estal.

Etche hutsa, aharra hutsa.

Gabiak hatsa kharats.

Gaitza gaitza goak ahazerazten.

Gaitz orok du bere gaitzagoa.

Khanderallu hots, negia botz ;
Khanderallu bero, negia Bazkoz.

Ganibet berbatek debaka ogia eta erhia.

Gorozuma eta urkhabia, asturugaitzentako,

Gathia hougrik boustigabe arrainkari.

Gaztezero aoherrak dakharke zahartze landerra.

Gaiza ounhetsirik ezta ounhes zaliarentako itchousirik.

Geroa alderdi.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ☽ l. l. 6^{an}, arratseko 10^{or} eta 6^m.
- ☾ a. o. 13ⁿ, arrastiriko 20^{or} eta 26^m.
- ☿ a. l. 20ⁿ, goizanko 11^{or} eta 58^m.
- ☼ a. b. 28ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 48^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ l. l. 5ⁿ, goizanko 10^{or} eta 22^m.
- ☾ a. o. 12^{an}, gaiko oren 1 eta 7^{min}.
- ☿ a. l. 19ⁿ, goizanko 6^{or} eta 32^m.
- ☼ a. b. 27ⁿ, goizanko 10^{or} eta 29^m.



- 1 Ostegun.
- 2 Ostirale.
- 3 Neskanegun.
- 4 **Igante.**
- 5 Astelehen.
- 6 Asteharte.
- 7 Astizken.
- 8 Ostegun.
- 9 Ostirale.
- 10 Neskanegun.
- 11 **Igante.** 1.
- 12 Astelehen.
- 13 Asteharte.
- 14 Astizken.
- 15 Ostegun.
- 16 Ostirale.
- 17 Neskanegun.
- 18 **Igante.** 2.
- 19 Astelehen.
- 20 Asteharte.
- 21 Astizken.
- 22 Ostegun.
- 23 Ostirale.
- 24 Neskanegun.
- 25 **Igante.** 3.
- 26 Astelehen.
- 27 Asteharte.
- 28 Astizken.
- 29 Ostegun.
- 30 Ostirale.
- 31 Neskanegun.

- ZIRKONZISION
- s. Makari.
 - sa Jenevieva.
 - sa Rigobert.
 - sa Amelia.
 - APHARIZIO.
 - sa Melania.
 - s. Luzien.
 - s. Julien.
 - s. Marzien.
 - s. Teodose.
 - sa Tazieta.
 - J. K. Batheia
 - s. Ilera.
 - s. Phaole, erm.
 - s. Marzel.
 - s. Antoni.
 - J. K. Izen Sia.
 - s. Kanut.
 - s. Fabien eta Seb.
 - sa Agnes.
 - s. Bizente.
 - A. B. Ezkontz.
 - s. Timote.
 - J. Phaol. komb.
 - sa Batilda.
 - s. Johane Kris.
 - s. Amadeo.
 - s. Frantzes S.
 - sa Martina.
 - s. Petiri Nol

- 1 **Igante.** 4.
- 2 Astelehen.
- 3 Asteharte.
- 4 Astizken.
- 5 Ostegun.
- 6 Ostirale.
- 7 Neskanegun.
- 8 **Igante.**
- 9 Astelehen.
- 10 Asteharte.
- 11 Astizken.
- 12 Ostegun.
- 13 Ostirale.
- 14 Neskanegun.
- 15 **Igante.**
- 16 Astelehen.
- 17 Asteharte.
- 18 Astizken.
- 19 Ostegun.
- 20 Ostirale.
- 21 Neskanegun.
- 22 **Igante.**
- 23 Astelehen.
- 24 Asteharte.
- 25 Astizken.
- 26 Ostegun.
- 27 Ostirale.
- 28 Neskanegun.

- s. *Ignazio.*
- KHANDERALLU
- s. Blasi.
- sa Jana, Val.
- sa Agata.
- s. Aman.
- s. Romual.
- Setuajesimo.*
- sa Apolina.
- sa Eskolaztika.
- A. B. Lourdakoa.
- s. Tita.
- s. Jilbert.
- s. Valenti.
- Saxajesimo.*
- sa Julieta.
- s. Hiji.
- s. Flavien.
- s. Konrad.
- s. Onesimo.
- s. Fucher.
- Kinkajesimo.*
- s. Petiri Dam.
- J. MATHIAS, ap.
- HAOSTE.
- s. Romano.
- Elhorr. Khor.
- s. Rufi.



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☽ l. l. 6ⁿ, arratseko 7^{or} eta 23^m.
- ☾ a. o. 13^{an}, eguerdi eta 22^{min}.
- ☿ a. l. 21^{an}, gaiko 2^{or} eta 17^{min}.
- ☼ a. b. 29ⁿ, gaiko oren eta 3^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ l. l. 5^{an}, gaiko 2 oren etan.
- ☾ a. o 12^{an}, gaiherdi eta 27^{min}.
- ☿ a. l. 19ⁿ, arratzeko 9^{or} eta 40^m.
- ☼ a. b. 27ⁿ, arrastiriko or eta 41^m.




- 1 **Igante.** GOROZUM. 1^a.
- 2 Astelehen. s Leon, Baion.
- 3 Astehart. s^a Kunegonda.
- 4 Astiz. *IVTh.B.* s. Kasimir.
- 5 Ostegun. s. Luperkule.
- 6 Ostir. *IVTh.B.* J. K. lantza et Itz
- 7 Nesk. *IVTh.B.* s. Tomas Ak.
- 8 **Igante.** *Gorozumako 2^a.*
- 9 Astelehen. s^a Frantzes.
- 10 Astehart. 40 Martirak.
- 11 Ostegun. s. Konstanti.
- 12 Ostegun. s. Gregori haud.
- 13 Ostirale. Suario s^a.
- 14 Neskanegun. s^a Matilda.
- 15 **Igante.** *Gorozumako 3^a.*
- 16 Astelehen. s. Ziriaka.
- 17 Astehart. s. Patrik.
- 18 Astizken. J. Gabriel, ark.
- 19 Ostegun. s. JUSEF.
- 20 Ostirale. J. K. Zaori S^{ak}
- 21 Neskanegun. s. Benedit.
- 22 **Igante.** *Gorozumako 4^a.*
- 23 Astelehen. s^a Pelajia.
- 24 Astehart. s. Agapit.
- 25 Astizken. A. B. Anontz.
- 26 Ostegun. s. Braolio.
- 27 Ostirale. J. K. Odol Prez.
- 28 Neskanegun. s. Justein.
- 29 **Igante.** PASONIA.
- 30 Astelehen. s. Amadeo.
- 31 Astehart. s^a Balbina.

- 1 Astizken. s. Huges.
- 2 Ostegun. s. Frantzes, P.
- 3 Ostirale. A. B. Dolor.
- 4 Neskanegun. s. Isidro, aph.
- 5 **Igante.** ERRAMU.
- 6 Astelehen. s. Sisto.
- 7 Astehart. s. Herman.
- 8 Astizken. s. Albert.
- 9 Ostegun. Osteg. saintu.
- 10 Ostirale. Ostir. saintu.
- 11 Neskanegun. Nesk. saintu.
- 12 **Igante.** BAZKO.
- 13 Astelehen. s^a Ermenegilda.
- 14 Astehart. s. Justi.
- 15 Astizken. s^a Anastazia.
- 16 Ostegun. s^a Grazi.
- 17 Ostirale. s. Anizet.
- 18 Neskanegun. s. Elutero.
- 19 **Igante.** 1. s. Leon IX.
- 20 Astelehen. s. Teotimo
- 21 Astehart. s. Anselmo.
- 22 Astizken. s. Soter eta Kaio.
- 23 Ostegun. s. Jorje.
- 24 Ostirale. s. Zerazi.
- 25 Neskanegun. J. MARK, Eb.
- 26 **Igante.** 2. s. Klet.
- 27 Astelehen. s. Antimo.
- 28 Astehart. s. Phaole K.
- 29 Astizken. s. Petiri, m.
- 30 Ostegun. s^a Katalina.



EZKOUNTZE KHIRISTIA

Aita Sainiaren guthunen arao.



UNDU orok dakian gaizabat da noulako izan den ezkontziaren hatsarre egiazkoa. Nahi bada, horrez aiphu, sinheste khiristiaren etsaiek eztien houn hartzen Elizak bethi danik erakatsi diana, eta aspalditik ahala oro egiten dien populu orok eta mente orotan bethi ezagutu dienaren ezaba erazteko, halere ez tie ez galerazi, ez ahultu, egiaren indarra eta argia. Orok badakiena eta ihourk ere ezbaian ezar eztirokiana arra erraiten dugu : krezioniaren seigerren egunian Jinkoak, gizona lurraren lohitik mouldatu, haren begithartiar bouhatuz biziaren hatsa eman, eta nahi ukhen zeion eman lagunbat, gizonaren beraren saihetsetik, lo zelarik, ikhous garriki idoki ziana. Gaiza orori ezin haboro ohartzen den Jinkoak, hola eginez, nahi zian gizoun emazte bi hourak izan litian gizoun guzien erazliak, jente kentia jalkhi behar zen ondoa bezala, eta thai gabe populkatzez ordu orotan iraitekoa. Eta amore katik gizonaren eta emaztiaren juntatze hori izan ledin hobeki Jinkoaren gogo ezinago zuhurren araberako, ukhen zutian, eta ordu danik barna sarthurik eta kasik kanpo ageri bezala bi dohañ gehien, ororen artian harainti : batarzuna eta bethi iraitia.

Hori bera ikhousten dugu erranik eta segurtaturik zabalki Ebanjelioan, Jesu Kristen jabegoa jinkozkoaz, Judioer eta Apostolier erakasten zianian, ezkontzia, beraortarik, bi jenteren arteko, gizoun bakhoitz eta

emazte bakhoitzen arteko baizik eztaitekiala ; bietarik aragibat berbera bezala izan behar dela, eta ezkontt uztarria, Jinkoak hala nahi dialakoz hain dela tink eta ountsa opilaturik, noun ez peita gizonik houra idok edo ethen dirokianik : Gizouna juntaturen da bere ezkonttidiari eta izanen dirade biak aragibat. Hartakoz eztirade biga, bena aragibat. Jinkoak juntatu diana arren, ihourk berhez eztezala.

Bena emeki emeki ezkonttziaren izate eder hori harrotu eta ezestatu zen. Algarren arteko bizitziaren chederik batere etzien jinko izunak jaoresten zutien populiek. Hartaraturik ziren gaizak noun gizonek emaztebat beno haboro hartzen ahal beitzien, eta zutienak igorten zer nahi estakururen pian. Ehi da ikhoustia zer bilhakatzen ziren mañatak (edo familiak), eta zounbat esteiari zen emaztiaren izatia. Hatik goure Jaonak, hatsarretik Kreazaliak ezari legiak, orano tinkago ezartez, arra berritu zutian, eta ezkonttzia erori zen heñetik urhats chuchenian ezari, zioalarik : « Erraiten dereiziet, nourk ere igorriko beitu bere emaztia, ezpalinbada lohikeria delakoz, eta beste bat hartzen, adulterio bat egitendu, eta nourkere hartuko beitu harek igorria, adulterio eginen du. »

Bena Jinkoaren jabegoak, ezkonttziiaz aiphu, chedatu eta ezari ziana, Apostolu, Jinkoaren legen mezuler zirenek erakaspentan eta izkiribietan zabalkiago eta cheherokiago erantzutu die. Heben erran behar dugu, Apostolien ondotik, Aita saintiek, Biltzarrenek, eta Elizaren usantchak bethi erakatsi die la Jesu Krist goure Jaonak eraiki diala ezkonttzia sakramentuzko izate gorala ; ber ordian nahi ukhen ziala senhar emaztek, haren merechien bidezukheiten dien zeluko graziak lagunturik eta azkarturik, ardiets lezen saintutarzuna ezkonttztian berian ; algarganatzehartan perfektago erazi diala bata bestiaren maitetarzuna, eta tinkatu azkarkiago, jinkozko karitatiaren

hediaz, gizounaren eta emaztiaren beraiez ezin berhez daitekian algartarzuna. « Ziek, zenharrak, zioan jaon dona Phaolek Ephesatarrer, maitha itzatzie zien emaztiak, bere Eliza Jesu Kristek maithatu, eta haregatik bere bizia eman zian bezala. Bere emaztiak senharrek maite ukhen behar tie bere khorpitzabera bezala, ihourk ezpeitu bere aragia egundano huguntu ; bena bakhoitzak hazten eta arthatzen du J. Kristek Elizarentako egiten dianaren anzo, haren khorpitzeko menbroak beikirade, eta haren aragi eta ezurrez eginik Hartakoz ere gizonak bere aita amak eitziko dutu, eta bere emaztiari jarraikiren, eta biak aragibat izanen dira. Sakramentu hori handi da, diot, J. Kristetan eta Elizan. »

Hala, hala, Apostolietarik badakigu J. Kristek nahi ukhen diala ezkontziaren batarzuna eta iraitzarre bethierekoa, hatsarretik beretik manhaturik zirenak, izan litian saintu eta behin ere ezin haostekoak. « Ezkontziaz algarganaturik direner, dio ber apostolu J. Phaolek, derraiet, ez nik, bena Jaonak berak mezutzen derezie, emaztia eztadin senharretik berhez ; berhezturik balinbada, egon dadila arra ezkontu gabe, edo bere senharrareki bakian jar dadin. » eta berriz : « Legiari etchekara da emaztia, bere gizona bizi deno ; bere gizona hiltzera jiten bazaio, haizu da. » Horiegatik arren « sakramentu handibat da, orotan ouhouragarri », saintu, garbi, errespetagarri, zeren beita gaiza ezinago gorenen utchura eta señalia.

Arra orhiterazten dutugunetan, hatik, ezta osoki edireiten ezkontze khiristiaren betheginzarre osoa. Orai lehenago beno urhenburu gorago eta noublia-gobat ezkontien algartarzunak edukiten du : ezi, hari zaio ezpere mundiaren populkatzia, bena orano Elizaren haor emaitia, saintien khide eta Jinkoaren zerbutchari diratekianak, Jinko egiazkoaren eta J. Krist goure Jaonaren ezagule eta jaoretszale populu-

baten ernaeraztia. Gero, ezkontide bakhoitzaren eginbidiak garbiki manhaturik izan dira eta zuzenak ere ountsa chedaturik. Bortchatu dira orhitzera algarri zor diela maitetarzunik handiena, fidelitate bethikoa eta egun orozko lagungoa lehiatia. — Gizona da mañatako gehiena eta emaztiaren buru. Emazia halere, haren aragitikako aragia, eta haren ezurretako ezurra delakoz, senharraren peko izan beharda eta obeditu behar derio, ez esklabobaten anzo, bena lagun bezala. Eta buru denian, obeditzen dianian ere, bata Jesu Christen, bestia Elizaren, utchurak direlakoz biak, Jinkoaren karitakiak behar du izan bethi eginbidiaren chedatzeko: ezi «gizona emaztiaren buru da, J. Krist Elizaren buru den bezala. Bena Eliza J. Kristen manupian beita, hala hala, gaiza orotan, emaziak bere senharren manupeko izan behardira.»

Guziek badakie Elizak zer egin dian ezkontziaren hounetan eta ouhouretan, eta noula bere erakaspenez emaztiaren izatia eraiki dian. Badirade halere gizon Elizaren hounkiginak ezkontziaren eretzian mesphetchatzen beitutie, eta ukhatzen ere. Zer gizon diren hourak badakigu : astura gaichtoer osoki emanik, ez tie deus nekezago egarten, noula Elizaren jabe goari eta harek ezari leger jarraikitzia beno. Bere indar oroz ari dira besten boulkatu nahiz Jinkoaren legiaren petik jalkhitera.

Mañataren eta jentekentiaren uthurria eta hasta-pena delakoz ezkontzia, gizon haiek ez tiroie houn har Elizaren legiaren peko izan dadin; eta orano haboro, bilaizi nahi lukie ezkontzia bere saintutarzun osoaz, eta sar erazi lege zibilaz chedatzen eta gidatzen diren gaizen herrenka arrountian. Hortik aritzez, populiarien aitzindariet ezagutzen tie ezkontzetan gañen zuzenak oro, batere aldiz Elizari; Elizak zerbait zuzen ukhen badu ezkontzetan gañen, etzatekian aitzindariet haizu eizten zielakoz baizik edo berak hartu zutialakoz. Ordu da, dioie, pupuluko

gehienek arrahar ditzten bere zuzenak eta lehia ditian bere nahiaren araoera chedatzera ezkontziari datzaionak oro. Hortik jindira ezkontze zibilak deithu dutienak bere ondoramen ororekin. Ikhouston dugu ezkontziaz aiphu, jujatzeko eta chedatzeko photeria oro idoki diela hain ountsa Elizari noun deusentako edukitzen beitie haren jinkozko jabegoa, bai eta harek ezari lege zuhurrak, zounbat nahi lege haien pian bizitu ziren hain luzaz populiak, ounestatiaren argia khiristigoarekin ukheiten zielarik.

Ehi da ikhoustia zer gaitz dadukan ezkontziaren hola erabiltiak, eta zounbat kalte behar dian orano egin algarren arteko bizitzian. Ezkontziak hobe eta dohaintsiago egiten du senhar emazten bizia, eta hori gisa hanitchez : algarri emaiten dien lagungoaz, maitetazun iraikor eta fidelaz, hountarzun ororen algarreki gozatziaz, eta zeluko graziaz. Mañaten hounetan hanitche egin diro ezkontziak : ezi naturalazaren urhatsian eta Jinkoaren gogoko denian, askazien artian bakia begiratzen du, segurtatzen haorren behar bezala eraikitia, haorrer ezagut erazten obeditu behar diela aita amer, zerbutcharier ere jarraiki behar direla buruzagien manier. Hola izan da ezkontzia khiristi baratu den ordu oroz. Bena geroztik zer khanbioak! Ez aiphatzeko lege zibilak ezkontzier ezagutzen dian algarganik berhezteko ahala baizik, eztu haboro iraipenik ezkontziak; algarren arteko maitetazuna ahultzen da, fidelitatia ere bai; noula haorak eraikiko dira? Emaziaren izatia ere zinez aphalturik da, eta beldur izateko da harentako, berbera egon dadin, gizonaren boullta gaichtoer zerbutchatuz geroan.

Ezinago harainti da khiristiek ezditzen bere buriak eitz enganatzera Elizaren etsaiez; bardin harainti da orok jakin dezen zerbait algartarzun egiten bada sakramentutik kanpo, eztiala algartarzun horrek ezkontze egiazko baten indarra eta balia; eta zounbat

nahi lege zibilen arao eginik den, eztela deus usantchabat baizik ; legek ezpeitufie chedatzen ahal zibilian ezkontziak deraozkan gaizak baizik, eta gaiza hourak eztirade agitzen ezpadie bere erazle egiazko eta lejitimoa, erran nahi beita ezkontzia bera.

Ezinago harainti da horik ezaguturik eta ountsa gogoan harturik izan ditian ezkontidez, amorekatik eta jakin dezen, phuntu hortan legen araoera bizitzen ahal direla, eztianaz geroz hori gaichki hartzen Elizak, nahi beitu eta antsiatzen beita ezkontziaren ondoramenak oro solthu izan ditian, eta haorrer damurik batere agi ezta kien. Bena bardin beharda, egun oroz hedatzen diren hainbeste erakaspén nahasien artian, jakin eztela photererik khristien artian chuchen etsirik eta hounturik izan den ezkontzia haots dirokianik, eta halaz nourkere nahi beluke ezkontze berribat egin, herioak lehena solthatu beno lehen, krimobatez ogendun jar leiteke.


Halere, gaizak hel balite hein batetara noun algurren arteko bizitzia ezin egar belitake, ordian Elizak haizu eizten dutu senhar emaztiak bakhoitza bedera alde joaitera ; ahalak oro eta behar diren sendagalliak oro egiten dutu haien heñaren araoera eztitzeko berhezte horren gaitzuniak, eta, batere etsitu gabe, bakiaren bien artian arrajineraztera bere antsiak oro ezarten dutu. Bena horik ezinbeste elibat dira, eta ehi lizateke senhar emazter haietara ez erortera, bere boullta gaichtoak zaphaturik, gogoan behar bezala erabil balitze ezkontziak eradukitzen deitzen eginbidiak, haren urhenburu egiazkoa, eta ezkont balite behar den trenpiarekin.

Eta ooren hitz gutiz erraiteko, ezkontzen iraipen phaosu eta bakezkoa segurtaturik dateke, ezkontidek bere gogoa eta bizia alhatzen badutie errelijioniaren berthutez, errelijioniak beitu arima azkartzen eta ernatzen, eta ezkontide bakhoitzian gerthatzen ahal diren estakuriak, ohiduren eta sor-

khurako berrebergoak, amatarzungoako antsien hachia, eta ezkontziari lothurik diren beste gaitzuniak oro egar erazten, ezpere bathireki, bena orano boronthate hounbateki.



TOBIASEN ISTORIA



ERRAFael ainguriak, Jinkoak igorri ziana Tobias gaztiaren lagun egin behar zian bidaje handibatetako, aholkatu zian gizoun gazte houra Erragel zen baten alhabareki ezkontzera: «Baduzu, ez hebentik hurrun, erranzeron, Erragel deitzen den gizonbat, zoure ahaide hullan eta zoure leñhukoa, eta harek badizu alhababat, Sara deitzen dena, haor bakhoitza. Haren hountarzun guzia zouri zor zaizu, eta haren alhaba emaztetako hartu behar duzu.» Gero ezkontziaren gañen eman zeitzon aholku ezinago harainti horik: «Zouñ ere ezkontzen beitira beraietarik eta bere gogotik kanpo Jinkoa ezarten dielarik, besterik deusere nahi eztielarik baizik eta bere boullta gaichtoak ase, enthelegurik eztien zaldi eta mandoak bez ala, hourak debriaren esku peko dirade. Bena zu, hareki ezkontuko zirenian, gelhan sarthu, eta hirour egunez begira zite haren ganik, eta othoitz baizik harekin ez egin. Eta hirourgerren gaia igaran datekianian, neskaso harturen duzu Jaonaren beldurrarekin, lehenago haor ukheiteko, eziaz eta lohikeriazko gogoak harturik, Abrahamen odoleko haorretan jardiets dezazun beneditziona.


Gero sarthu ziren Erragelenian, eta hounki jin egin zeren boztariorekin. Eta othoitzen beitzutian mahañiala hullantzera eta jartera, Tobiasek erran zeron: «Egun eztit heben ez janen eta edanen, noun

eztuzun ene galthoa ounhetsiren eta zoure alhaba Sara eni hitzamanen. » Horren entzutiareki Erragel ikharatu zen, eta ezpeitzian ihardesten, ainguriak erran zeron : « Ez lotsa izan zoure alhabaren houni emaitera, zeren emaztetako zor beitzαιο, Jinkoaren beldur delakoz ; hartakoz ezdiroke bestebatek ukhen zoure alhaba. » Erragelek ordian ezagutu beitzian Jinkoak hala nahi ziala hitzaman zian bere alhaba emaztegeitako Tobias gaztiari ; eta harturik alhabaren esku eskuña ezari zian Tobiasen esku eskuñian erraiten zerolarik : Abrahamen Jinkoa, Isaaken Jinkoa eta Jakoben Jinkoa zoureki biz eta bere beneditzionia zutan betha dezan. » Eta paperbat harturik ezkontzako izkiribia hountu zien. Gero bazkari egin zien, Jinkoaren benedikatzez ; bena ezteietako apairian berian kobratu ziren Jaonaren beldurrareki. Aña, Sararen amak, erran zeron alhabari : « Ene alhaba, emazu bihotzetik ; zeluko Jaonak boztarioz betha zitzala egari duzun nahigabiaren ordari. »


Gero Tobiasek aholkatu zian, ainguriaren erranaren arao, Jinkoaren othoitzera hirour egunez, zioalarik : « Ezi saintien haorak gutuzu, eta ezgiraitekezu algarrietchek ahal Jinkoa ezagutzen eztien jentekia bezala. Jinkoa othoitu zien arren : « Badakizu, Joana, erran zian Tobiasek, eztela ene boullta gaichtoek erazirik hartzen dudala Sara emaztetako ; bena cholli haor ukheiteko nahikariaz, haietzaz mente guzietan zoure izena hounki aiphaturik izan dadin. » Sarak erran zian ere Jinkoari : « Urrikari zakitzagu, Jaona, urrikari zakitzagu, eta zahar gitian biak osagarritan. Erragelek eman zian Tobiasi zutian hountarzun ororen erdia, eta izkiribuz ezari beste erdia Tobiasentako zatekiála bera hil ondoan. Eskien artian eman zeron Sara, zutian ororen erdiarekin, bai mithil, bai neskato, bai artheli, bai kameli, bai behi, eta diharu gaintika, eta eitzi zutian joaitera osagarriz eta boztarioz betherik. Ordian aita amek bezarkatu zien bere

alhaba, aholkatzen zielarik bere senharraren aita amen ouhouratzera, senharraren maithatzera, mañataren behar bezala chedatzera, etchaltiarene ountsa gobernatzera eta bere buriaren gaiza orotan chuchen edukitera.

Neskatila saintu harek jadanik ukhen zutian zazpi senhar; eta debriak oro hil erazi zutian ezkontzeko lehen gaia heltu beno lehen, ezpeitziren ezkontu bere boullta gaichtoñ hobeki asetzeko baizik. Bere aldetik ezagut erañten du, Jinkoari buruz bere othoitzian erraiten dutianez, zounbat haren bihotza garbi den eta boullta gaichto orotarik solthu : « Bada-kizu, Jaona egundano, eztudala gizon minik ukhen, eta nahikunte gaichto guzietarik begiratu dudala ene arima. Enuzu behin ere nahastekatu libertitzen lakhet direneki, eta ene buria eztit arhinkerian dabiltzanen baltsako erakoutsu. Bena gizon baten hartzia ounhetsi dit zoure beldurrarekin eta ez ene boulltari jarraikitzeke. » Etsenplu ezinago houna ezkontzen diren neskatilentako.



BIZITZE ZUHURRA



EZTAKIT eretze orotako berri, bena goure herrietaz mintzatzeko, ehi ikhouston da haboroetan langiliak khechu direla. Edo zouñ eskulan egitez bizi denak ezdiroke umen bizitzeko doia irabaz. Galdurik dira mouzkinak, eta geroago eta galzenago. Badirade biziphide franko, leheneko hirour etarik biga, ez eta ere dioienaz leheneko erdia, berlanetik denbora bardinian, orai irabazi gabe beitira. Horik langilen solazak. Langile beharrian direnek aldiz, beste solazik : langiliak lehen beno haboro

phakatu behar, lan gutiago egiten eta usiegi gaichkiago. Bena entzun ditzagun goure langiliak; ezte zinkhouri minkhour baizik: « Noula bizi? noula eta nourk irañ? Ezta haboro bizitzerik. Langilia orok alde orotarik zaphaturik bezala edukiten die. Langiliak ez tiro ihoulaz ere eta ihourat ihardu ki; ez tiro ihountik ere beriaz egin. » Uskal Herritik jalkitzen bazira marraskak orano handiago. Eta orai berian hanitch lekhutan lana bazter eitzirik dira jornaliak ez aski handiz. Bena orotan langilia khechu; langilia orok urrikari. Gaicho langilia!

Egiazki urrikaltzeko da ere langilia; bena ez bature irabaziak tchipiturik direlako; bena bai lehandanik hounat gastuphidiak largatu beitira. Langiliak beste orduz guti irabazten zian, eta gutiago araoka igorten ere. Egunko egunian hanitch irabazten du bai eta ere hanitch chahatzen. Lanetik irabazten dian beno haboro igorten du... zuntzurari behera eta urgulluz. Hori hola da ezpere eskulangile nekezalen artian, bena bardin edo zouin beste lanetarik bere bizitzekoaz egin behar dien guzietan. Orok dioie, hao eta hora dela; eztela irabazbide hounik, gastiak handi direla, eta sosa bekhan.

Hor ouste gabian egia handibat dioie egunko egunian ezin bizitziaz mintzo zaizkigunak; ez hatik irabaziak dioien bezainbatez tchipitiak direlako (handiturik dira segur zounbaitentako), bena gastu edo despendioak orotan itchouski handiturik beitira. Bena langile ala ez langile ororentako, hori bardin egia da. Ohiko langiliak gutiago irabazten zian oraikoak beno; ezi diala berrogeitahamarbat ourthe langile hounbat bazen hoge i sosen petik. Badirade orhit direnak laborantchako langile azkar eta gothorak lanian ari zirenak hamar, hamabi edo gorenaz hamabost soretan eguneko; eta hori lan idorrian, jan edanak bere gañ. Gizonek hamabi, hamabost sos, emaztek sei, zazpi sos irabazten zu-

tien eta halere bizi ziren. Noula bizi? Zuhurki erabiliz bere irabazi arhina.


Egunko zahar zaharretan balizate menturaz bat beno haboro langiliak ikhousirik laor sosen janhari edariek in eguna igaraiten. Oraiko langiler behar leitzakeie holakorik aiphatu : laor sosez egunian bizi! Hamar, hamasei, hogeï sos ere hanitchek eskaz lutukeie. Alabena edanak berak zortzi edo hamar sos, orai behar bada gutichago, eroaiten dere ; janak oraoka. Eta zer ez tie behar orano? Burutik zankhoe tarano, jaon andere handi bezala ez beztiturik ere, lehen beno hanitchez haboro igorten. Eta ezdeuseriatan, beharrunerik gabetarik igorten direnak!

Lehenekoek bere irabazi aphurñi hartarik egun oroz zerbait berhez ezarririk, begiratzen zien galtza chahar batetan ountsa estekaturik. Ahal noulako mousabat zen bena bethia. Oraikoak larruz, ederrago segur, bena ardura arditik gabe. Gut bere urhatsian egon nahi ; ihour ezta geroaz arrankuratzen. Jina jan eta edan. Badira orai ez takit zounbat edari muta gorri, chouri, gorhall, belcharan, berde, holli, beltz... chakolaren eta barniaren galgarri ; zuntzurrari behera igor, goizetik arrats. Zounbat ere emaztetan, hirietakoetan gehienik, edergallu eta souñeko arropa eder? Jin bedi eritarzunbat edo langabeziabat, gal dadila edo apha, irabazbidebat : horra goure langiliak hertsian. Atzo oro eder, igarailer sobat ere ez egiten, egun eske. Osagarri bethian, adinik hobenian, haorren hazteko lanik ez izanik ere, bardin gibela ; zortzi egun aohar bizi behar balie, den gutieneko eskugañik ez.


Hor duziela egunko langilia. Lehendanik hounat khanbio hanitch izan da bai : dihariaren balia zinez aphalturik da ; oraiko berrogei sosi beno esker haboro bazian langiliak leheneko hamarri. Bena hortan berian du langiliak huts egiten ; berenaz dihariaren balia aphaltu da, bena den beno ere apha lago etche-

kiten du langiliak. Hanitch nahi du irabazi, eta gero hatik, hanitchi ala gutiri ber eskerra die. Eztu grinarik ez acholarik irabazitik aphurbaten begiratziaz. Nahi dut orano franko lanetarikako irabaziak lehen aspaldi beno gorago izana gatik, zounbat ourthe hountan behera doatzala. Ez ordian chahubidiak ere behera araoian.

Irabaziak izan gora, izan apha!, bethi bardin eroaiten deie beren hora gormandizak, urgulliak, ezdeuskeriak. Debriak eroan du zuhurtzia. Berriz ere entzunen dugu karraska ederrik, zinkhouriminkhourihounik: ezin biziz lanak dutiala langiliak. Bai izanen ere hola lana. Zertako ez khountiak hersikiago egin, lehenik jan edanetan, gero beztitzian? eta azkenian ez deusere beharrune egiazkorik gabe behinere eros. Hirietan ehi ikhouston da gormandizkeriarik handienak, hala noula udazkeneko fruta bekhanenak, haboroetan langilek dutiela eroaiten, zounbat nahi phakaturik ere. Aberatsak zuhurrago direla dioie frankotan. Ezgira hola mintzo langiliak hugunt erazi nahiz; segur eztugu holakorik gogoan erabilten. Bena ezta gutiago egia, hobe lizatiala ororentako eta gehienik langiliaren berarentako ezpaliz irabazle beno chahuzaliago. Hortarik jiten beita, hamarretarik bederatzietan, ezin bizizko mina.



OUSTE GABETARIK BEDEZI



DIALA zoumbait mente bazen Parisen gizon ofiziale tchipibat. Emaztia artetarik joiten zian eta borthizki, ezpeitzen segurki eder; emaztia ere etzen malezia gabe, erran behar da. Ountsa nahi zatekian mendekatu, bena etchakin noula. Egunbatez

jakinturik erregeren alhaba biziaren galtzeko mene handitan zela, arrañ ezur chorrotchbat trebes sarthurik zuntzurrian, houna zer gogoan eroan zian egitia emazteki ezpiritu gaichto harek. Badoa arren khorteko aintzin darietarik baten gana, eta erraiten dero : Jaona, entzun dit erregeren alhaba zer erriskutan den eta bedezi barberrek ezteroiela deusere egin ; badit senharbat bere lanetik bizidena, ezpeita Parisen ez eta unguru hoietan hora bezain bedezi edo barber beniadunik. Erraiten deizut, bena segretian, ihourk sendotzekoz, harek eginen diala. Bena ez othoi salha nik holakorik errandudala, hil beinin dio ; ezi hugun dizu barbergoa, eta hari hersatzen diren guzier osagarri arentako, ihardesten du eztela ez bedezi, ez barber. Joka eta ountsa banbatuz behar da bortchatu erremedio egitera, bestela ukhatzen dizu bere jakitatia, zinez tematzen delarik. Hola ountsa eskolaturik khorteko aintzindariak, erregereki hitzartu, eta igorten deio gizonttoari noula haren arrankura diren jaoregian.

Ofizialia jakin gabetarik zerentako deitzen dien erregeren aitziniala, eta halere gothorrik hara badoa, zouñeko ederrenak ezarririk Jaoregi sar eta buruz jiten zaio gorago erran den aitzindaria, erraiten dersona : « Hounki jin zirade, adichkidia. » Bestiak : « Zerda arren zien zerbutchuko. » Jaonak : « Houna zergatik erakharri zutiegun ; erregeren alhaba hiltzeko mene handitan duzu, eta beitakigu bedezi abillbat zirela haren sendotzera deithu zutugu. » Gizonak ordian arrapostu : « Jaona enuzu, ni, den gutienik bedezi, ofiziale deus eztakianbat nuzu. » Jaonak aitzina : « Hots, hots, elhe guti eta egizu zoure abilezian ahal duzuna. » Gizouna berriz : « Bena sinhets nezazu enuzu ni batere bedezi. » Jaonak ordian : « A ! hola eia ! badakiz ugu zer duzun ments galthatzen deizienaren egin erazteko. » Bazutian hullanian bi gizon makhila bederareki ; kheñu egiten deu eta

erraiten : « Ountsa phanpa ez azu gero, obedi dezan. » Gizonek maniaren arao burutik behera, ari zaitzo ofizialiari, eta houra, orroa eta orroa. Berriz jaonak derraio : « Orai phuru eginen duzu galthatzen deiziena. » Bena ofizialiak arra ih ardesten dero « Bena, jaona, enizala ni bedezi ! » Aintzidariak aitzina : « Haoche da gizounaren buhurria ; jo ezazie orano. » Arralotzen zaitzo bi gizonak eta ofizialia ezinturik, eta hoberik etzela ikhousirik oihuz eroan dezen erregeren aitziniala. Erregek ikhoustiareki : « A ! horra zira arren gizon maitia. Sendotuko othe duzia ene alhaba ? » Ofizialiak orano : « Bena, jaona, enuzu bedezi. » Erregek aitzina jozaler buruz : « Eztuzie araoz askijo ; beharko derozie zoubait phanpako eman orano. » Bena gizonak, ezpeizen haboro jo arrankura, ihardesten iseiatuko dela ; galthatzen du noun den erregeren alhaba, eta laguntzen die haren gelhara. Gogoetan ari erazi zien beharrak eta beldurak. Erranik eitzi dezen anderiareki berbera hasten da dantzan, jaozi, utzuliphourdi eta zer nahi chiminokeriaren egiten. Hañ ountsa noun erregeren alhaba erriz hasten beizaio, saihetser etchekara, karkaza eta karkaza. Erriz hola arizelarik, zuntzurrian sarthu zeron ezurra kanpoat jalkhi. Eta horra noula ez ouste bedeziak sendotu zian erregeren alhaba. Erran behar da ountsa bazien ere, phakia eder ukhen ziala.

Gozagoko istoria horrek badu orano buztan bat Nahi gabetarik bedezi bilhatu zen gizon gaizoak ouste zian haizu zela erregeren alhaba hañ abilki sendotu landan. Ago amiñibat, etzela segur haizu. Sendotze amiragarri horen berria zalhe hedatu zen jaoregian, eta horra noun jiten zaitzon sargiala erimoltchobat othoiez sendo litzan. Erregek bere etchenkoak maite beitzutian, manhatu zian goure gizonttoa eia bere bedezigoako jakitatia haien hounetan eman lezan. Aithortzen bazian deusere etzakiala, phanpa-


koak segur zutian, eta egia zen fountsian. Orano ere beharrak emaiten dero abillezia. Houna noula urhats gaichto hartarik jalkhi zen. Ezar erazten du bertz handibat suian gañen dioalarik; Heben eritarzun gisa ountsatto bada; oro bedeziek ezin sendotuz eitziak. Bena nik behar dit erremedio usatzen eztenbat; harekin ouste dut haboroak sendotuko dutulala, ez padira guziak, bena zietarik batek beharko du sakrifizio handibat egin besten amorekatik; ezi nik behar dudana da jente ourina. Zien artian gutienik sendotzeko esparantcha dianak eginen du erran delako sakrifizioa Bertza suian ezarririk beita, berhala hourteraziko dugu. Besten aitzinian zegoen atchobati erran zeron : « Zu zira ene oustez eri gaichkiena, zu zutugu arren bertzian hourteraziko. » Bena atchoak hain sarri : Ez segur, enuzu eta kasik eri eta ja sendotia. Hori erran eta laster ihesiari emaiten du. Ofizialiak berri persouna hatsbahi eta etik bati buruz : « Bena zu zira araoz eriena, eta zu hartuko zutugu. » — « Ez ez, bestiak arrapostu, zoure aitziniala jitiak berak chahusendotu nizu. » Hola, hola, eta aldizka beste han hullan zirener mitzatu zen, eta orok ber arrapostia, sendoturik zirela. Haietarik gibel zirenek, gaiza konpreniturik, orok batetan zioien : Sendoturik nuzu, sendoturik nuzu, eta orok lekhia hountu zien.

Holache ouhourezki burutu zen goure ouste gabeko bedezia. Erregek jakinik oro sendo joan zirela, berriz saristatu zian.





LABORANTCHAZ



1^o Laborantcha eta Uztak 1902^{an}.

AORTHEN izan da Khanberaren arraberritza. Azkena joan da laborantcharen hounetan gaiza handirik egin gabe. Balukie hatik deputatiek zeren laborariaz orhit eta zeren haren althia tink eduk! Bozka aitzinetik oro hitzamaiten dutie; izentatu ondoan, akabo! ez elhiak baizik baratzen. Zer egin dian azken khanberak ikhertu dugu aitzin-neko armanaketan kasik oro. Denbora llaburtzen hasi zerenian, erran nahi beita azken ourthe urhentzetik goiti, orhiturik araoz laster botzemailen berekatzera joaitekoak zirela, zerbait hounik nahi ukhen die deputatiek laborarien eta jente chehiaren althe. Behin behin, hounainbesteko diharutzari bai eman die soldadoer ardou chortabaten edan erazteko, eniz orhit hatik egun oroztako zenez. Holaz ouste ukhen die bilduko zutiela soldadoen ahaiden botzak, eta ber urhatsaz ardoua ezin salduz dagotzen laborarier sinhets eraziko haien althe jarten zirela. Bena noula governia ari beita aspaldi hountan bi burriak ezin algarganat hel eraziz, izitu du soldadoen ardouaren-tako diharu emaite horrek, eta azkenian, gaizak egon dira ohiko heñian.— Ikhouston zien guziek bazela zerbait egiteko bere mouzkin garbiena ardoutik idokiten dienen althe. Zer agitu da? Elhe hanitz khurubilatu eta ezin heltu deusen hountzera. Arraberrituz geroz khanberari etzaio uduri laboraririk haboro badela. Khidegoetan edo algargoetan gañeko egin azken legiak emaiten deron indarra oro emaiten die minis-troek serora eta fraidiak eskoletarik igorten, eta bu-rutan joaiten badira ezateke sarri eskola khiristik

batere ; gero araoz aphezen aldia jinen da, eta nahiko die gobernazalek errelijionia bera chahu gal erazi. Laborariak baduke bere hounetan egin behar lutukienen ugurukiteko denbora.

Zertsu izan da aorthenko ogi uzta ? Laborantchako ministroak prefeten bidez ukhen dutian berrier esker ezagut erazidu eraiki diela 95 miliou kintale, erran nahi beita 124 miliou ektolitra edo zaku. Azken chifru hori egiatik hullan da araoz ; ezi eretze orotan ogiak eder ziren. Bena, pheziaz aiphu, ezteia eman chifria hanitchez goregi ? Uztaila urhentzian eta agorrilan eurizu izan da haroa ; bihia gaichki zorhitsu da guneka eta berheziki ipharralteko bazter guzietan.

Eretze haietan bildu die ogi ezpeitie segurki 68 edo 69 kiloz goiti zakukal. Segur ezteie ountsa estimatu ogi uzta prefetek, edo bestela, zakien khountia egin, eta ouste ukhen die phezia ourthe idorretan bezala zela. Ogiak ountsa saltzen dira hegoalteko eretzetan ; etzen ountsaz ere ipharraltekoetan bezainbat, bena ebakitzeko phuntian haroa eder zen, eta bihia hanitch houn bilhatu. Noula ezpeita kasik batere ogi zaharretarik, prezioak eztira hanitch aphalturen, eta eztateke araoz gora behera handirik haroa noulakoere agituko beita, bai eta daigun ereitzen utchura. Oraiko behar-runer buru egiteko beharko da kanpotik sar erazi 4 miliou eterdi ogi zaku ; pharte handiena emanen deikie Aljeriak eta Tunisiak, ezi herri hoietan uzta ezinago houn izan da aorthen. Mundu orotako uzta boti, angles laborantchako gasetabatekdioana, heltzen da miliart eta 37 miliou zakutara, 21 miliou zaku aitzineko ourthian beno haboro.

Olho egin die eijerki, bena haro boustiareki bildu ; beldur izateko da bihia eztaadin net houn bilha. Betaraba bazkageia ezta beste ourthez bezañ ountsa hazi eta loditu ; halere izan da uzta hounbat. Halaber betarraba sukregiaz. Arthouaz eztugu deus erraiten ahal, berri eskazez. Ardou eginen die ountsaz azken

bi ourthetan beno gutiago. Orotan kasik mahatsak bildurik dira, bena zouñ erezetan haro tcharra ukhen die lan horren egiteko. Hanitch lekhutan ere haroaren gaitzaz mahatsak erdi hirotu dira, ezpeitie haiek segur ardou hounik emanen. Nounti nahi ezta ardoua merke izanen daigun ourthian. Sagarardou egiten dien erezetan sagar uzta desbardin da ; uzta herenbat edo erdibat hanitchetan, osoki houn gutiagotan. Belharrez izan da gaintika ; erran zahar bat bada behere hortan : belhar ourthe ezdeus ourthe, bena ez-tate osoki egia aorthen. Haboroetan haro ederrareki ebaki eta bildu die. Kabale haboro hazi ahalko die laborariak eta prezioak goratu chebeitira, beharbada hortik idokiko die mouzkin eijerrik. — Lursagarra ountsa abiatu rik, azkenilat eritarzunak zinez jo du guneka ; sagarrak eztira kalitatez net houn, ezpeita handi, haroa eztielakoz althe ukhen, bena askitto bada.

Ziberouko uzten berriak. — Joaiten ari den ourthe hao ezta izan goure laborarientako ez hobenetarik, ez gaichtoenetarik, han, batabeste, artekoche. Bihiaz aiphu, ogi uzta usatia beno gutiago bildu die. Etziren sorthu ere ogiak behar bezala, azikak haro boustiareki egin zirelako, eta gero, udako bero borthitzek bortchaturik, buriak baratu zeitzen tchar eta arhin. Arthoak eman du hobeki ; jin zen hanitch eta ountsa hazi ere bai, agorrilako euri hounbati esker : ere eztugu ihounere hebegainti aspaldian holako arthorik ikhousi. Bena larrazkenian hotz eta bousti egin dialakoz eztira aski zorhitsu zouñ erezetan, eta berheziki bortu ondouetan. Lursagar hanitch guti izan da, eta direnak ere chehe eta ez net sano. Areta eztu lur sagarren eskaza betheko ilharraren soberakinak ; ilhar guti sorthu da, dena ez ountsa hazi, eta bildu orduko, deusere ez.

Zuhaintze frutadunez mintzatzer, etzen gerezirik eta bagoak eztu deusere eman. Ber gaizachia erran

dirokegu haritchaz eta intzaortziaz. Gaztañatzek ederki emandie, eta orano gaztañaztoiak eiharturik eztiren gunetan, aorthen gaztaña hounik eta franko janenda. Sagar eta udari ere hanitch izanda eta haboroak begiratzeke houn.

Aihenak eman du arrountian usatu beno gutiago. Hanitch abio ederra izanik mahatsak, hotzak lilian galerazi zian pharte. Udan eritarzunak bethi bezala erabili zian, eta berriz larrazkeneko haro bousti eta hotzak mouhouri ountsatto hirot erazi, bestiak aski hounzetik gibeltu. Hartakoz beldur izateko da egin den ardoua eztatekiala net houn.

Kabalek die goure laboraria aorthen laguntu deusek ere beno hobeki. Ilhiak egia bada ere bethi merke dira, eta orano joan den ourthian beno merkiago. Bena kabaliak berak hanitch ountsa saltzen dira aspaldi hountan, eta daigun negian badukie zertzaz bazka. Beste orotan bezala izan da goure herrian belhar eta arradall, bietarik hanitch eta oro houn.

2° Lur sagar uzta noula emenda.

Diala zounbait ourthe, izkiribatzen zian laborari aiphatu batek, nindagoen sobost aratako lur sagarrez ereñik zen alhor tchipibati; lur sagarren biltzen ari ziren ene mithilak. Ohartu zeitan hantche hebentche liliak nihaorrek ebaki nutian herroketan sagar hanitchez haboro bazela liliak eitzi nutianetan beno.

Esprabu hora egin nian, eta ikhoustiareki zer agitu zen, gogoan eroan nian hala baizik izan etzatekiala. Ezi ondoari lilia idokitez, eztu ondoak emanen kanika berde egiazko lur sagarraren fruta eta azigeiak direnak; halaz saparen indarra, kanika hetara joaiteko ordutan, bortchatuko dut eraichtera zañetara, eta sagarrak saldotuko eta erdertuko dira. Hobeki gaiza hori chouritu beharrez, bi ourtheren burian, ber ahorrian, ereñazten dut ber kastako eta ber handi-

goako lur sagar, orano segurrago izan ledin esprabia, eta begia ountsa etchekitzen deriot.

Ene alhorra phartiturik da arren ber handigoako laor taolatan; lehen biak goroztaturik dira, bata kabale edo barne gorotzez, bestia kanpo gorotzez. Beste bi zathiak baratzen dira gorotzik batere gabe. Lanthariak ederki jin ziren, eta zankhoek bazien metra bedera gora. Utchurala uzta ezdeus bat behar zen; bena handizki gainti egiten nian.

Liliak agertzen hasi zirenian aldepetik oro ebakiten nutian zehe erdibatetan behera; bena hantche hementche herroka elibat eizten nutian bere lilieki, ikhous ahal nezan zer ondoramen zatekian errekoiltaren biltzian. Ourthe beranta beitzen, urrieta erditan liliak ebaki zankhoak eta ostoak berde eta eder, kanikadunak, aldiz, oro historik. Ber hilabeteko azken egunetan bildu nutian lur sagarrak eta houna zer gerthatu zen ekhoizpenaz.


1° *Goroztatu bi taoletan.* — Lilia ebakirik zutian ondo bakhoitzak eman zian (bata beste) hamabi hamabost kilotara phezu ziren sagar athebat, eta sagarrak, gutiz bestiak. hanitch eder, zounbait ere ahurra beno handiago. Aldiz lilidun ondo bakhoitzak etzian eman sagar guti baizik, eta zirenak hanitchez chechiago. Etzen phezutan ondokal hirour edo laor kiloz goiti sagar.

2° *Goroztaturik etziren bi taoletan.* — Lili gabe ziren ondoek eman zien, bakhoitzak hirour edo laor kilo sagar aski ederrak, bena goroztatian beno hanitchez haboro sagar chehe bazen. Lilia eitzi nian ondo bakhoitzak etzian kilobaten altia baizik sagar, batakin intzaor propibaten lodigoako, beztiak hurrak bezala.

Hortik ezagun da, dudarik batere gabe, lur sagar ondoer liliaren ebakitiak dadukala ekhoizpen handiena, uzta usatia hirour, laor, bostetan gorentzen dialakoz. Zer nahi den, ezta khosta iseiatzia.



ISTORIA ETA ERASI



ERREREBOLUZIONE *handiko istoriabat.* — 1793^{an}, Erreboluzioneko ourtherik ikharagarrienian bazezen Sara, Laphourdiko herrian, Madalena Larralde deitzen zen hamazazpi ourthetako neskatila gaztebat. Errelijione tiarra zen, eta, kobesatzeko aphezik ezin edirenez bortiaz hounaintian, joan zen Españala, eta han, Bera den Nabarrako hirian, bere errelijionezko eginbidiak bethe zutian. Ordu hartan gerla phizturik zen borthiaz bi aldetako populien artian. Noula arjelak saldoka atheturik beitziren Frantziako mugetan, Madalena neskatila gaichoua kobesatzetik etcherakoan bahitu zien eta presou ezari, oustez edo erranez izan zela etsaiekin hitz hartzera. Zaintzen zutien ordian, begiak ernerik, Espāñalateko bide chendak oro!

Halere haor gazte haren ikhoustiareki bihotza khordokatu zeron frantzes soldadoen aintzindariari; jakin zian zerentako Espāñan izan zen, eta beitzakian bes-teri egiaren erraitez hiltzeko menian jarten zela neskatila, gisa hountan aholkatu zian: « Galthatzen badeizie noun zinen eta zerengatik, errazu neskatila adichkide lagun baten ikhouston izan zirela. » Bena Madalenak etzian gezur hori, zounbat nahi arhin zen, erran nahi ukhen armadetako han gainti zen komisariari; chuchen ihardetsi zeron, egia zen bezala, kobesatzetik utzultzen zela. Komisari bihotz gogorak manhatu zian gillotina lezen neskatila gaztia. Ordian agertuzen zounbatetarano zen hamazazpi ourthetako neskatila haren bihotzarria. Buria gorarik eta *Salve Regina* khantatzez joan zen presountegitik tresna ikharagarriaren ondoalano. Lephoa

mouzturik hil nahiago izan zen, eziaz eta gezur tchhipibatez Jinkoaren legia haotse.

Gizon hustuchbatjoan zen behin harriturik janartora gana, erraitera ikhousi ziala arima herratubat, eta orduz geroztik etziala hounik. « Eta nouiz ikhousi duzu arrima herratia ? » galthatzen dero janartorak. — « Barda, jaona, bestiak aitzina, argizagita chouri beitzen, ene lanetik etcherakoan. » — « Eta noun ago ikhousi duzu ? » — « Oho ! Elizako murru pharetian. » — « Eta zer mouldetako zen ? ountsa sogin derozia ? » — « Ha ! jaona, asto handi baten utchura oro zizun. » — « Hola balinbada ez den gutieneko acholik ukhen ; zoure itzala ikhousi duzu. » — Holakotsu dira arima herratu eta belhagile direlakoen istoria haborochiak.

Errege Louis hamalaorgerrena, hiri batetara heltzen zelarik, hanko mera edo alkhatia jin zeron batzarre egitera boutilla ardou zounbaiteki, eta udari ezinago eder ziren zarebateki, erraiten zerolarik : « Joana, houna jiten nitzaizu ene herriko gehieneki ; eskeintzen dèreitzugu goure ardoutik, udari zounbait, eta hoién gañetik goure bihotzak. Eztizugu deusere hoberik goure herrian. » Erregek berhala, souin buria hounkitzen zerolarik, ihardetsi zeron : « Jaon mera, ezinago gogoa bethe diztatziet zoure elhek ; zouria uduri nahi nintiketzu entzun hounkijinezko pheredikiak oro. »

Parisen, zubu berribaten egin urhentzen ari zirelarik, ofiziale gehienek hitzartu zien egitia egun batez bazkari handibat. Goiz hartan berian ikhousi zien gizounbat zubu haren luzegoaren izartzen ari, ihouri ere deus erran gabe. Phensatu zien enthelegatzen zela zubu egiten, eta khumitatu zien beraiekila bazkaritera. Bazkal ondoan gero, erran zereien nounere-

beita gogoan benia zerbait baziala haien lanaren ountsa beno hobeki egiteko. Harek ordian arrapostu ; « Nik, Jaonak, gogoan dudana da hanitch ountsa egin duziela zubiaren plantatzia, uhaitzaren zabalian ; ezi luzian egin ukhen bazunie, etzintien hain zalhe buriala helturen. » Baliatu zeron ordunkoz choroa betherik izatia !

Misionistabatek behin bere pheredikian ari zelarik, entzun zian mintzokabat eliza selaorutik, eta beldur beitzen gal errangei zutianen hallikoa, ihourere izentatu gabe orori buruz erran zeren ichilik egon litian. Noula aitzineko pherediku batetan emaztiak tcherkhatuche beitzutian, haietarik bat ordian tanpez chutitu zen, araoz emaztekentiaren ouhouria aphaintu beharrez, eta erran pheredikazaliari : « Oraikoan hatik, Jaona, ezgutuzu gu elhesariak ! » Eta misionistak hain sarri : « Hobe, hobe, emaztettoa, segur nuzu bertanago ichiltuko direla. »

Diala aspaldi, ountsa aspaldi, Uskal Herriko etcheke jaon batek bazutian alhor batetan ñabo elibat bena gaitzak. Jakinturik errege Enrik laorgerrena Paoben zela, hartzen dutu ñaboetan hamarbat ederrenetarik eta eroaiten deitzo dohain gisa laborariak hain maite zutian errege houn hari. Erregek ezinago batzarre houn egiten dero goure etcheke jaonari, eta bere etchalteko edo khorteko gehiena manhatzen du eman dizon ñabo ukhenen ikhouspidetan bere eskuderietan den bohorrik ederrena.

Gizonttoa gothorrik bere zaldi ederraren gañen Paobetik etcherat buruz zoelarik, Orthezetik hounat bathu zian han gaintiko etchekejaon bounet handibat galthatu zeron nountik bilhatu zian zankharteko zaldi ederra. Uskaldunak ihardesten noula ñabo zounbaiten truku erregek eman deron. Biarnesak

bere buriarekin : Zer! ñabo zounbaiten truku! Eta zer emanen dereit, eni, sorhoan dudan podra ederra eroaiten baderiot? Horik gogoan eroaiten dutialarik eizten du hor uskalduna, eta badoa lehen bai lehen bere podraren ondotik; gero souñeko ederrenak ezarririk badoa podraren erregerieskeintzera. Erregek milatan eskerrak deritzo bere present ederraz, eta gero, erria españetan, deithurik bere khortekogehiena erraiten dero : « Eman itzotzu, othoi, biarnestto horri, adesako gizounak ekharri deiztan ñaboak. » Etzen balinba kountent izan podraren sariaz!

Bala chakolan. Guduka handibatetan frantzes aintzindari bat bala batek belhañian kolpaturik, bidebazterreko errekalat erori zen. Burkhidiak ematuche zirenian, eroan zien aintzindaria portaderetan hullanian zen ospitalebat etara. Hara heltu den bezain sarri barber bizpahirour lotzen zaitzo eta hasten hebentik tzizta, hantik tzizta. Kolpatiak egari zutian hatsarrian hitzbat erran gabe barberen lahardekak; bena azkenian bathi ezin haboro eginez, galthatzen deie : « Zertako arren gisa hortan erabilten naizie. » — « Eta Jaona, batak ihardetsi, balaren ezin edirenez ari gutuzu. » — « Zer, mila debru, bestiak aitzina, orai beno lehen erran ahal zunukien! Orizie bala : chakolan nizun! »





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ① l. l. 4ⁿ, goizanko 7^{or} eta 35^{min}.
 ② a. o. 11^{an}, arrastiriko or 1 eta 27^{min}.
 ③ a. l. 19^{an}, arrastiriko 3^{or} eta 27^{min}.
 ④ a. b. 26^{an}, arratsesko 10^{or} eta 59^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

- ① l. l. 2^{an}, arrastiriko or 1 eta 33^m.
 ② a. o. 10^{an}, goizanko 3^{or} eta 17^{min}.
 ③ a. l. 18^{an}, goizanko 6^{or} eta 53^{min}.
 ④ a. b. 25^{an}, goizanko 6^{or} eta 20^{min}.



- | | | |
|----|----------------------|----------------------------|
| 1 | Ostirale. | J. Filipe et Jak. ap. |
| 2 | Neskanegun. | s. Atanasi. |
| 3 | Igante. 3. | <i>Da Xburutz.</i> |
| 4 | Astelehen. | s ^a Monika. |
| 5 | Asteharte. | s. Pio V. |
| 6 | Astizken. | s. Johane Eb B L. |
| 7 | Ostegun. | s. Stanizlaz. |
| 8 | Ostirale. | s. Migel. agert. |
| 9 | Neskanegun. | s. Gregori, Na. |
| 10 | Igante. 4. | s. <i>Antoinein.</i> |
| 11 | Astelehen. | s. Oriens. |
| 12 | Asteharte. | s. Nere et Akil. |
| 13 | Astizken. | s. Jenio. |
| 14 | Ostegun. | Joh. Sala, doh. |
| 15 | Ostirale. | s. Eutrope. |
| 16 | Neskanegun. | s. Johane Nep. |
| 17 | Igante. 5. | s. <i>Paskal B.</i> |
| 18 | Astel. <i>Errog.</i> | s. Venanzio. |
| 19 | Asteh. <i>Errog.</i> | s ^a Pudenziena. |
| 20 | Astiz. <i>Errog.</i> | s. Bernardein. |
| 21 | Ostegun. | SALBATORE |
| 22 | Ostirale. | s ^a Kiteria. |
| 23 | Neskanegun. | s. Ubalde. |
| 24 | Igante. | <i>A. B. Laguntz.</i> |
| 25 | Astelehen. | s. Gregori VII. |
| 26 | Asteharte. | s. Filipe Neri. |
| 27 | Astizken. | s ^a M. Mad. P. |
| 28 | Ostegun. | s. Agosti. |
| 29 | Ostirale. | s. Garzia. |
| 30 | Neskanegun. | s. Felis. |
| 31 | Igante. | PHENTEKOSTE. |

- | | | |
|----|-------------------------|---------------------------|
| 1 | Astelehen. | s. Kler. |
| 2 | Asteharte. | s. Potein. |
| 3 | Astiz. <i>IV Th. B.</i> | s ^a Klottilda. |
| 4 | Ostegun. | s. Frantzes K. |
| 5 | Ostir. <i>IV Th. B.</i> | s. Bonifazi. |
| 6 | Nesk. <i>IV Th. B.</i> | s. Norbert. |
| 7 | Igante. 1. | TRINITATE. |
| 8 | Astelehen. | s. Medart. |
| 9 | Asteharte. | s ^a Prima. |
| 10 | Astizken. | s ^a Margarita. |
| 11 | Ostegun. | BESTABERRI. |
| 12 | Ostirale. | J. BARNABE, a. |
| 13 | Neskanegun. | s. Antoni, Pad. |
| 14 | Igante. 2. | s. <i>Basila.</i> |
| 15 | Astelehen. | s ^a Jermena. |
| 16 | Asteharte. | s. Frantzes R. |
| 17 | Astizken. | s. Avit. |
| 18 | Ostegun. | s ^a Marina. |
| 19 | Ostirale. | J. K. BIHOTZS. |
| 20 | Neskanegun. | s ^a Juliëna F. |
| 21 | Igante. 3. | s. <i>Louis</i> Gonz. |
| 22 | Astelehen. | s. Paolein. |
| 23 | Asteharte. | s. Eusebio. |
| 24 | Astizken. | J. JOHANE BA. |
| 25 | Ostegun. | s ^a Eurosia. |
| 26 | Ostirale. | s. Johane eta Paola. |
| 27 | Neskanegun. | s. Prosper. |
| 28 | Igante. 4. | s. <i>Irene.</i> |
| 29 | Astelehen. | J. Petiri et P. |
| 30 | Asteharte. | J. Phaol. orh. |



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ① l. l. 1^{an}, arratseko 9^{or} eta 11^m.
 ② a. o. 9^{an}, arrastiriko 5^{or} eta 52^m.
 ③ a. l. 17^{an}, arratseko 7^{or} eta 33^m.
 ④ a. b. 24^{an}, eguerdi eta 55^mⁿ.
 ⑤ l. l. 31^{an}, goizanko 7^{or} eta 25^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ⑥ a. o. 8^{an}, goizanko 9^{or} eta 3^m.
 ⑦ a. l. 16^{an}, goizanko 5^{or} eta 52^m.
 ⑧ a. b. 22^{an}, arratseko 8 oren.
 ⑨ l. l. 29^{an}, arrastiriko 4^{or} eta 43^m.



- | | |
|----------------------|-----------------|
| 1 Astizken. | s. Tierri. |
| 2 Ostegun. | A. B. Bisitaz. |
| 3 Ostirale. | s. Gillen. |
| 4 Neskanegun. | s. Léon II. |
| 5 Igante. 5. | J. K. Odol Pr. |
| 6 Astelehen. | s. Trankile. |
| 7 Asteharte. | s. Marzial. |
| 8 Astizken. | sa Beronika. |
| 9 Ostegun. | sa Elisabet, P. |
| 10 Ostirale. | Zazpi anaie m. |
| 11 Neskanegun. | s. Pio. |
| 12 Igante. 6. | s. Jobane G. |
| 13 Astelehen. | s. Anaklet. |
| 14 Asteharte. | s. Bonaventura |
| 15 Astizken. | s. Henrik. |
| 16 Ostegun. | A. B. KARMEL. |
| 17 Ostirale. | s. Aletsis. |
| 18 Neskanegun. | s. Kamille. |
| 19 Igante. 7. | s. Bizente P. |
| 20 Astelehen. | s. Filibert. |
| 21 Asteharte. | sa Pratseda. |
| 22 Astizken. | sa M. Madalena. |
| 23 Ostegun. | s. Apolinari. |
| 24 Ostirale. | sa Kristina. |
| 25 Neskanegun. | J. JAKOBE, ap. |
| 26 Igante. 8. | sa Agna. |
| 27 Astelehen. | s. Galatori. |
| 28 Asteharte. | s. Nazari. |
| 29 Astizken. | sa Marta. |
| 30 Ostegun. | s. Abdon. |
| 31 Ostirale. | s. Ignazio L. |

- | | |
|-----------------------|-----------------|
| 1 Neskanegun. | J. Petiri kat. |
| 2 Igante. 9. | s. Ezteb. err. |
| 3 Astelehen. | J. Ezteb. edir. |
| 4 Asteharte. | s. Dominiche. |
| 5 Astizken. | A. B. Elhurr. |
| 6 Ostegun. | J. K. Transfig. |
| 7 Ostirale. | s. Kajetan. |
| 8 Neskanegun. | s. Ziriako. |
| 9 Igante. 10. | s. Jermein. |
| 10 Astelehen. | s. Laorentz. |
| 11 Asteharte. | s. Tiburze. |
| 12 Astizken. | sa Klara. |
| 13 Ostegun. | sa Radegonda. |
| 14 Ostirale. | s. Eusebi. |
| 15 Neskanegun. | A. B. ZELIAL. |
| 16 Igante. 11. | s. Joakimo. |
| 17 Astelehen. | sa Emilia. |
| 18 Asteharte. | sa Elena. |
| 19 Astizken. | sa Filomena. |
| 20 Ostegun. | s. Bernat. |
| 21 Ostirale. | s. Julien Lesk. |
| 22 Neskanegun. | s. Ipolita. |
| 23 Igante. 12. | A. B. Bihotz s. |
| 24 Astelehen. | J. BARTOL., ap. |
| 25 Asteharte. | s. Louis, err. |
| 26 Astizken. | s. Zefiri. |
| 27 Ostegun. | s. Jusef Kal. |
| 28 Ostirale. | s. Agosti. |
| 29 Neskanegun. | J. Joh. Lephom. |
| 30 Igante. 13. | sa Rosa, Lima. |
| 31 Astelehen. | s. Remoun N. |



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- Ⓜ a. o. 7^{an}, gaiherdi eta 29^{min}.
- Ⓢ a. l. 14ⁿ, arrastiriko 10^{or} eta 23^m.
- Ⓜ a. b. 21ⁿ, goizanko 4^{or} eta 40^m.
- Ⓜ l. l. 28ⁿ, arrastiriko or. 1 eta 18^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓜ a. o. 6ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 33^m.
- Ⓢ a. l. 13ⁿ, arrastiriko 8^{or} eta 6^m.
- Ⓜ a. b. 20ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 39^m.
- Ⓜ l. l. 28ⁿ, goizanko 8^{or} eta 42^m.



- 1 Asteharte. s. Jiles.
- 2 Astizken. D. Justi.
- 3 Ostegun. s. Lizier.
- 4 Ostirale. s^aFrantzesa Ch.
- 5 Neskanegun. s. Laorenz J.
- 6 **Igante.** 14. s. *Onesiforo*.
- 7 Astelehen. s. Zebero.
- 8 Asteharte. A. B. SORTZIA.
- 9 Astizken. s. Omer.
- 10 Ostegun. s. Nikolas.
- 11 Ostirale. s. Iazinte.
- 12 Neskanegun. s. Gi.
- 13 **Igante.** 15. A. B. *Izen Sia*.
- 14 Astelehen. D^{na} Khurutze.
- 15 Asteharte. s. Nikomede.
- 16 Astiz. *IVTh.B.* s. Ziprien.
- 17 Ostegun. s. Frantz. zaor.
- 18 Ostir. *IVTh.B.* s. Jusef Kup.
- 19 Nesk. *IVTh.B.* s. Janvier.
- 20 **Igante.** 16. A. B. *Dolor*.
- 21 Astelehen. J. MATHIU, Eb.
- 22 Asteharte. S. Maor.
- 23 Astizken. s^a Tekla.
- 24 Ostegun. A. B. Librazalia
- 25 Ostirale. s. Aostinde.
- 26 Neskanegun. s. Tomas Vil.
- 27 **Igante.** 17. s. Kosma eta Dam.
- 28 Astelehen. s. Faosti.
- 29 Asteharte. J. MIGEL, ark.
- 30 Astizken. s. Jeronimo.

- 1 Ostegun. s. Remi.
- 2 Ostirale. Ainguru beg.
- 3 Neskanegun. s. Binzeslaz.
- 4 **Igante.** 18. ARRUSARIOA.
- 5 Astelehen. s. Frantzes, As.
- 6 Asteharte. s. Bruno.
- 7 Astizken. s^a Fide.
- 8 Ostegun. s^a Brijita.
- 9 Ostirale. s. Denis.
- 10 Neskanegun. s. Frantzes B.
- 11 **Igante.** 19. A. B. *Amatarz*.
- 12 Astelehen. s^a Daonina.
- 13 Asteharte. s. Edouar.
- 14 Astizken. s. Kalista.
- 15 Ostegun. s^a Teresa.
- 16 Ostirale. s. Beltran.
- 17 Neskanegun. s^a Edvijs.
- 18 **Igante.** 20. J. Luk, Eb.
- 19 Astelehen. s. Grat, Olor.
- 20 Asteharte. s. Johane K.
- 21 Astizken. s^a Ursula.
- 22 Ostegun. s. Petiri, Alk.
- 23 Ostirale. s. Leotade.
- 24 Neskanegun. s. Rafael, ark.
- 25 **Igante.** 21. A. B. *Patron*.
- 26 Astelehen. s. Evarista.
- 27 Asteharte. s. Fronton.
- 28 Astizken. J. SIMOUN, ap.
- 29 Ostegun. s^a Eusebia.
- 30 Ostirale. s. Kazien.
- 31 Neskanegun. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA
Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⊕ a. o. 5^{an}, goizanko 5^{or} eta 37^m.
- ⊕ a. l. 12^{an}, gaiko 2^{or} eta 55^{min}.
- ⊕ a. b. 19ⁿ, goizanko 5^{or} eta 19^m.
- ⊕ l. l. 27ⁿ, goizanko 5^{or} eta 46^m.

ABENTIA edo NEGILA
Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}



- ⊕ a. o. 4^{an}, goizanko 6^{or} eta 22^{min}.
- ⊕ a. l. 11ⁿ, goizanko 11^{or} eta 2^m.
- ⊕ a. b. 18ⁿ, arratseko 9^{or} eta 35^m.
- ⊕ l. l. 27ⁿ, gaiko 2 oreneterditan.




- | | | |
|----|-------------------|-------------------------------|
| 1 | Igante. 22 | DONISANTORE. |
| 2 | Astelehen. | <i>Purg. arimak.</i> |
| 3 | Asteharte. | s. Zebero. |
| 4 | Astizken. | s. Charles Bor. |
| 5 | Ostegun. | s. Zakaria. |
| 6 | Ostirale. | s. Leonart. |
| 7 | Neskanegun. | s. Florent. |
| 8 | Igante. 23 | <i>Errelikia Sak.</i> |
| 9 | Astelehen. | s. Teodoro. |
| 10 | Asteharte. | s. Andreu Av. |
| 11 | Astizken. | J. MARTINE. |
| 12 | Ostegun. | s. Marti. |
| 13 | Ostirale. | s. Stanizlaz K. |
| 14 | Neskanegun. | s. Didazi. |
| 15 | Igante. 24 | ELIZEN SARR. |
| 16 | Astelehen. | s. Edmon. |
| 17 | Asteharte. | s. Gregori J. |
| 18 | Astizken. | s. Odon. |
| 19 | Ostegun. | s ^a Elisabet Ong |
| 20 | Ostirale. | s. Felis, Val. |
| 21 | Neskanegun. | <i>A. B. Eskentzia</i> |
| 22 | Igante. 25 | s ^a Zexila. |
| 23 | Astelehen. | s. Klement. |
| 24 | Asteharte. | s. Johane Kh. |
| 25 | Astizken. | s ^a Katalina. |
| 26 | Ostegun. | s. Konrad. |
| 27 | Ostirale. | s. Virjilo. |
| 28 | Neskanegun. | s. Maorino. |
| 29 | Igante. | <i>Abentuko 1^a</i> |
| 30 | Astelehen. | J. ANDREU, Ap. |

- | | | |
|----|-----------------------|--------------------------------|
| 1 | Asteharte. | s. Eloe. |
| 2 | Astizken. | s ^a Bibiana. |
| 3 | Ostegun. | s. Frantzes Zab. |
| 4 | Ostirale. | s ^a Barbara. |
| 5 | Neskanegun. | s. Sabaz. |
| 6 | Igante. | <i>Abentuko 2^a</i> |
| 7 | Astelehen. | s. Ambrosi. |
| 8 | Asteharte. | A. B. KONZEB. |
| 9 | Astizken. | s. Jeronze. |
| 10 | Ostegun. | s ^a Ulalia. |
| 11 | Ostirale. | s. Daniel. |
| 12 | Neskanegun. | s. Melkiade |
| 13 | Igante. | <i>Abentuko 3^a.</i> |
| 14 | Astelehen. | s. Arzene. |
| 15 | Asteharte. | s. Mismein. |
| 16 | Astiz. <i>IVTh.B.</i> | s ^a Adelaida. |
| 17 | Ostegun. | s. Gazien. |
| 18 | Ostir. <i>IVTh.B.</i> | s. Urbein. |
| 19 | Nesk. <i>IVTh.B.</i> | s. Liberat. |
| 20 | Igante. | <i>Abentuko 4^a.</i> |
| 21 | Astelehen. | J. TOMAS, Ap. |
| 22 | Asteharte. | s. Flavien. |
| 23 | Astizken. | s. Ororat. |
| 24 | Ostegun. | s ^a Delfina. |
| 25 | Ostirale. | EGUBERRI. |
| 26 | Neskanegun. | J. EZTUBE, m. |
| 27 | Igante. | <i>J. Johane, eb.</i> |
| 28 | Astelehen. | Haor Inozent. |
| 29 | Asteharte. | s. Tomas, K. |
| 30 | Astizken. | s. Manzuet. |
| 31 | Ostegun. | s. Zilbestre. |



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANĒ GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Ezkontze kheristia	1
II. Tobiasen istoria.....	7
III. Bizitze zuhurra.....	9
IV. Ouste gabetarik bedezi.....	12
V. Laborantchaz :	
1º Uztak 1902 ^{an}	16
2º Lur sagar uzta noula emenda.....	19
VI. Istoria eta erasi.....	21

